ARTZINIEGA

Ezagutu behar duzun herria *Un pueblo para conocer*






artziniega /210 m./

Artziniega izenaz ezagutzen dugu 1272. urteaz geroztik hiribildu izaera lortu zuen erdigune harresitu historikoa eta, izen horren hedaduraz dugu gaur egungo 22,45 km²-ko azalera eta 1.818 biztanle dituen udalerria. Hau da, Artziniega izenaren barruan hiria bera eta bestelako herri arruntak daudela bildurik.
Hiri-gutuna Alfontso X Jakitunak eman zion bertan zegoen herrixkari, eskualde horretako bideak eta garraioak kontrolatuak izan nahi zituelako. Bestetik badakigu, artziniegarren presentzia askoz lehenagokoa da: Arteko Andra Mariaren Santutegian egindako indusketa arkeologikoetan erromatarren garaiko bizigune bat azaldu zen. Horrez gain, Erdi Aroko hainbat egitura arkitektoniko eta hilarri eder bat besteak beste.

El nombre de Artziniega se correspondía con aquel enclave histórico amurallado que fue planificado al serle concedido del título de villa en 1272. Por extensión de aquel término hoy se denomina así el municipio de 22,45 m² y 1.818 habitantes, incluyendo la villa de Artziniega propiamente dicha y otros pueblos comunes varios.
Fue Alfonso X el Sabio quien con la concesión de la carta puebla convirtió aquella pequeña aldea en villa, con la intención de tener bajo su control los transportes y comercio del lugar. Pero el poblamiento del lugar es bastante anterior: en las excavaciones arqueológicas realizadas en el Santuario de Ntra. Sra. de la Encina apareció un establecimiento habitacional datado en la Romanización, además de diversas estructuras arquitectónicas medievales y una preciosa estela funeraria, entre otros elementos.




soxoguti /238 m./

Bere izenak 'Soxo txikia' esanahia du, goragoko Soxo Aiarakotik bereizteko. Bi auzo zeuden Soxogutin, eliza banarekin: San Roman eta Barruelo.
Herrira sartzean deigarria da oso Lopez Saenz Camara txakolingile aberatsak XVI. mendean eraikitako dorretxe erraldoia. Itxura hori izan arren, moda estetiko batengatik eraiki zen horrela, Erdi Aroko gudak mende bat lehenago amaitu baitziren.

Su nombre significa 'Sojo Menor', para diferenciarlo del Sojo ayalés. En Sojoguti existieron dos barrios principales, con iglesias diferenciadas: San Román y Barruelo.
Al visitar el lugar llama poderosamente la atención la descomunal torre erigida en el XVI por el acaudalado chacolinero López Sáenz de Cámara. A pesar de las apariencias, no es sino fruto de una corriente estética, ya que las guerras medievales habían finalizado un siglo atrás.





1.
En el camino que desde Artziniega
se va a Gordeliz quanco y media de
legua de esta Villa entre pasos que
llamon de Gordeliz, pasado el rio
se hallaron el ano de 1787 algu
nos vepulturas de piedra con sus
mentos de hombres y alle mismo
una piedra de vein quartas y
media de alto y tres de ancho
con la inscripcion y figuras si
guiente copiada por mi en
18 de Octubre de 1788. con la exac
titud que permite lo gastadas
que esta las letras en me
dio de haberse hallado enzesa
da.
Alta 5 4: pulg.
Ancha. 3 0:
Gruesa .. 2 4:

gordeliz /360 m./

Auzo hau Artziniega hirira zihoazen bide nagusien ondoan zegoen kokatuta. Herritik gertu, eta beheko ibaia zeharkatzeko ibi baten ondoan hilobi batzuk eta erromatarren garaikoa omen zen aldare bat agertu zen 1787. urtean. Egun desagertuta dago baina baditugu L. Prestamero (1733-1817) ikerlariak utzitako oharrak. Adituek emandako interpretazioen arabera, erreketako jainkosei eskainitako aldarea zen.

Este barrio se ubicaba junto a una de las principales vías de acceso a la villa de Artziniega. En un lugar próximo, en el vado del cercano río, aparecieron en 1787 unos sepulcros y un ara (altar), probablemente del período de la Romanización. Hoy está desaparecida pero sabemos de ella gracias a los apuntes dejados por el investigador L. Prestamero (1733-1817). Al parecer, y según las interpretaciones dadas por los expertos, era un ara ofrendada a las divinidades acuáticas del lugar.



Retes, junto a Tudela

erretes /394 m./

Erretes herria 1842. urtea arte egon zen Aiarerrian. Honen barruan beste Erretes bat zegoenez, "Tudela ondokoa" formula hasi zitzaion atxikitzen herriaren izenari. Denboraren poderioz, gehigarri hori "Tudelakoa" bihurtuko zen, nahiz eta Erretes herria ez den inoiz Burgosko Tudela eskualdekoa izan.
Dokumentazioari begira badirudi euskararen eraginpeko "Erretes" forma ere oso erabilia zela bertakoen artean. Bestetik, nahiko arrunta izan zen bertakoen abizenetan eta oraindik bizirik dirau Ameriketara joan zirenen artean.
Elizaren azpiko harpean, Brontze eta Burdin Aroen bitarteko materiala agertu zen: hainbat ontzi, zeramikak, silexa...
Bere kokapenagatik, erraz izan zitekeen Erreteskoa Burdin Aroko herri harresitu bat, gerora, XV-XVI. mendeetan, lekuz aldatuko zena, hots, elizatik egungo kokapenera.

Pueblo que hasta 1842 perteneció a la Tierra de Ayala. Y como dentro de ésta existía otro Retes, para diferenciarlos entre sí, comenzó a añadírsele la coletilla "de junto a Tudela" que con el paso del tiempo se convirtió en "de Tudela", a pesar de que nunca Retes perteneció al burgalés territorio de Tudela.
A la vista de la documentación, parece que también fue de uso habitual la forma "Erretes", sin duda influenciada por el euskera, y que también fue común en los apellidos. Hoy tan sólo se mantiene en la de los descendientes de aquellos que emigraron a América.
En la cueva de debajo de la Iglesia apareció diverso material arqueológico datado entre las edades del Bronce y Hierro: varios recipientes, cerámicas, silex...
Por la ubicación tan altiva del pueblo, no sería descabellado pensar en un antiguo castro de la Edad del Hierro, y que en torno a los XV-XVI desplazaría su poblamiento desde la iglesia hasta el casco actual.

Artziniega, y lugar de herrenes






mendieta /220 m./

Aiarerriko herria izan zen eta Erretes, Soxoguti, Santa Koloma eta Artziniegarekin batera, Ordunteko Herri Batzarra osatzen zuen. Gordexola, Balmaseda eta Menarako bide nagusietan estrategikoki kokatua, berebiziko garrantzia izan zuen bertako dorretxeak, Erdi Aroaren bukaeran oso borrokatua. Gerora, XV. mendean eta behin amaituta Erdi Aroko gatazkak, eraiki zen egun ikusten dugun dorretxe izugarria, zahar haren gainean.
La Llana zen herriko auzo nagusia nahiz eta gaur egun etxe eta elizaren aurriak baino ez diren geratzen. Artziniegan jaiotako eta Gaztelako artilearen aberastutako herriko seme batzuei esker, eliza XVIII. mendean berreraiki zen.

Fue pueblo de la Tierra de Ayala y, junto a Retes, Sojoguti, Santa Coloma y Artziniega, miembro de la Junta de Ordunte. Situada estratégicamente en los caminos principales hacia Gordexola, Balmaseda y Mena, su torre fue de gran importancia, siendo lugar además de crueles enfrentamientos en las postrimerías de la Edad Media. Posteriormente, ya en el siglo XVI y fuera de los periodos belicosos, se edificó la sobrecogedora torre actual sobre la anterior.
El principal barrio de Mendieta fue La Llana, del que hoy en día no se conservan más que las ruinas de sus casas e iglesia. Esta fue reconstruida en el XVIII, con las aportaciones que unos artziniegarras enriquecidos con el comercio de la lana en Castilla hicieron a dicho lugar.





campijo /240 m./

Artziniegako auzo hau, behinolako garraiorako bide nagusien ondoan zegoen kokatua. Hala ere, beti izan zen funts gutxikoa. Eliza ere bazuen, baina Artziniegakoaren menpekoa. Horregatik ez zuen bataiarririk eta horrelako sakramentuetarako hirira joan behar zuten bertakoek.

Barrio de Artziniega, ubicado junto a importantes caminos comerciales de otras épocas. Aún así, siempre fue de poca entidad. Disponía de iglesia, pero concebida como filial de la de Artziniega. Por ello no tuvo pila bautismal y los lugareños debían acudir a la villa a recibir este tipo de sacramentos.






santa koloma /342 m/

Balmasedako bidea menperatzeko asmoz, dorre bat eraiki zuten bertan salazartarren leinu boteretsukoek. Egun ez dago ezer baina herriko etxe nagusian bere aztarnaren bat ikus daiteke. Kokapen estrategikoagatik baita ere, kanpatu zuen Santa Koloma herrian Frantziako armada 1808ko azaroaren 8an, kalte handiak eraginez, batik bat, Campijoarriba auzoan zegoen San Pablo baselizan.

Con el fin de dominar el camino hacia Balmaseda, los miembros del poderoso linaje de los Salazar, construyeron una gran torre en el lugar. De ella no queda nada salvo diversos elementos visibles en la casa principal del pueblo.
También por su ubicación estratégica, Santa Koloma fue el lugar elegido por el ejército francés para acampar un 8 de noviembre de 1808, generando grandes destrozos, especialmente en la hoy desaparecida ermita de San Pablo, en el barrio de Campijoarriba.





©Testu eta argazkiak: FELIX MUGURUTZA MONTALBAN

Aireko argazkia: 2009-04-23 eta 2009-05-29 egunen bitartean egindako hegaldia / Foto aérea: vuelo efectuado entre las fechas 23-04-2009 y 29-05-2009